



Bezeroen eskaeren arabera egindako eskulanak izango dira azokan. Arbaso elkartea



Artisauen topagunea

Urtero, Euskal Herriko eskulangintzak bere lekua izan du Durangoko Azokan. Euskal Dendak hamazazpi urte darama azokarekin elkarlanean, eta aurten 56 artisau etxetako eskulanak izango dira salgai.

Literatura, musika eta beste diziplinekin batera, eskulangintzak ere badu bere lekua Durangoko Azokan. Euskal Dendak hamazazpi urte darama azokarekin elkarlanean. Arbaso Elkarteak antolatzen du Euskal Denda, eta aurten 56 artisau etxetako eskulanak izango dira azokan. Aurtengo leloa *Artisautza esku*-raizango da. Zazpi herrialdetako eskulangileen lanak bilduko dituzte, baina aurten nabarmena izango da Bizkaiko eskulangileen presentzia. Tradizioarekin estu lotutako produktuak sortzen dituzte eskulangileek, baina azken urteetan gaurkotasunari keinuak egiten hasi dira, eskulangintza teknikak zorrotuta. Bernat Vidal Arbasoko presidentearen esanetan, eskulangileentzat garrantzitsua da etorkizunari begiratzea: «Zoritzarre, askotan ahaztu egiten zaigu tradizioak ere aurrrera egin behar duela, eta atzean gelditzen gara».

Aurten, hogeい erakusmahai berri izango di- tu Euskal Dendak. Bertan, berrikuntza ugari bilduko dituzte. Berezietakoa Bizkaiko Idoia Gabantxoren Gabrek tailerra izango da; Gabantxok Lur Barriak saria irabazi berri du. Zur eta Lur tailerreko Gorka Garroteren lana ere oso nabarmena da. Bestalde, Montse Buso I Marsa Kataluniako eskulangileak marmol paperarekin egindako lanak aurkeztuko ditu.

Krisiarekin ohitutako lanbidea

Ekulangileek asko eskertzen dute bezero-ekin zuzenean egoteko aukera. Durangoko Azokak aukera ezin hobea eskaintzen die erosleekin hitz egin eta haien eskaerak eta iradokizunak entzuteko. Vidalen ar- bera, eskulangintzak erosle finko eta leial asko ditu. «Erronka da haien eskaerei be- har bezala erantzuteko gai izatea». Esku- langileak betidanik egon dira bezeroengan-

dik gertu, oso zuzeneko tratua izan dute, eta Vidalentzat, eskulangintza berezi egiten duen ezaugarria da hori. «Ezin gara prezio merkeekin leihatua. Gure ezaugarririk onenak produktuaren kalitatea eta gertukotasuna dira; bezeroaren eskaerei moldatzeko ahalmenak egiten gaitu berezi».

Eskulangintza lanbide ezaguna da Euskal Herrian, baina bigarren mailan egon da beti. Vidalen esanetan, jendeak ez du hala ikus- ten, eta ondo dabilen sektore bat dela uste dute askok. Baina Arbasoko presidenteak salatu du instituzioen lagunza gutxi jasotzen dutela: «Dena den, ez da bakarrik instituzioen arazoa; sektorean bertan, komuni- kazio falta handia daukagu. Eskulangintza



Aurten, 20 erakusmahai berri izango ditu Euskal Dendak, eta berezia izango da Bizkaitik etorritako eskulangileen lan erakustaldia

artearen senide pobrea da». Txirotasun ho- rren ondorioz, krisia ez zaie ezustean etorri. «Beharbada, ohitura gaude, gure sektorea beti egon baita krisian. Azken bi urteetan ez dugu beherakadarik nabaritu, baina azken gertaerak ikusita, goizago edo beranduago sentituko dugu krisiaren eragina. Dena den, hilabete hauek oso garrantzitsuak dira gure- tzat, bezero asko datozelako Gabonetako opariak erostera. Opari oso originalak dira, bezeroaren nahien arabera eginak baitira». Krisian egon arren, Euskal Herrian ondo erro- tutako lanbidea da eskulangintza, eta azken urteetan interesa piztu du gainerako herrial- deetan. «Gure bezeroek asko miresten dute esklusibotasuna eta tradizioa. Azken urtee- tan, Japonia, Korea eta Txina gure lanarekin liluraturik egon dira, kulturarekin lotutako es- kulangintzaren oso zaleak direlako».

Saria urte osoko lanari

Aurten, paperarekin lan egiten duten arti- sauak izango dira azokako protagonista na- gusiak. Hain zuzen ere, eskulangile horiek hainbat erakusketa egingo dituzte azokan, marmol papera eta paper birziklatua erabil- tzen irakasteko. Umeen zein helduen taile- rrak antolatu dituzte, eta bertan irakatsiko di- tuzte gozokiak egiteko prozedura, zetaren gainean margotzeko teknikak edota zapia- egiteko moduak. Horrez gain, aurten, herrial- de gonbidatua ijitoena da, eta haien eskulan- gintzarekin ere elkarlanean arituko dira.

Bestalde, urtero bezala, Artetsu sariak banatuko dira. Saria 2005ean hasi ziren ematen, eskulangintzan ari direnak omen- tzeko. Aurten, Iñaki Alberdi sarituko dute, bizi osoa euskal makilak egiten aritu izana eskertzeko. Beste sari bat *El Correo-ri* emango diote, eta hirugarrena, Urduñako Olaran Elkarteari eta Urduñako Udalari, eskulangintzaren alde egindako lana- regatik. BBK-k ere izango du saria, eko- nomikoki urte askoan babestu duelako sektorea. Azkenik, Durangoko Udala ere sarituko dute, euskararen alde egindako lanarengatik.

